

ALKOHOLIKO ANONIMO ELKARTEA

“Askotan norbera izaten da alkoholarekin arazoak dituela gutxiena konturatzten dena”

■ Zailena norberak arazoak duela onartzea izaten da elkarteko kideen hitzetan eta askotan faktoreren batek gertatu behar du horretaz konturatzeko.

BADIRA 65 bat urte Alcohólico Anonimoen lehen elkartea sortu zela Estatu Batuetan eta ekainaren 10-ean ospatzen da sorrera horren urteurrena. Hernaniko Alcohólico Anonimo elkartea 1968an sortu zen eta berengana jo dugu beren bizipenak jakin eta alkoholarekin arazoak dituen pertsona batek zer pausu eman litzakeen jaki-teko.

■ Alcohólico Anonimoen lehen elkartea sortu zela Estatu Batuetan eta ekainaren 10-ean ospatzen da sorrera horren urteurrena. Hernaniko Alcohólico Anonimo elkartea 1968an sortu zen eta berengana jo dugu beren bizipenak jakin eta alkoholarekin arazoak dituen pertsona batek zer pausu eman litzakeen jaki-teko?


Normalean gutxiena konturatzten dena norbera da, erabat behea jota ez badago. Baina zerbaitek eraginda etorri liteke hona arazoak dituen pertsona bat: senar edo emazteak ultimatuma emanda, medikuak esanda, lantegian gomendatuta... behin etorrita jendearen bizipenak entzun eta kontratu liteke egitan arazo bat duela. Gehienetan inguruau sortuko zaion arazo haundiren batek eragiten du pau-sua ematea eta alkoholarekin arazoak duela onartza, ez baitu hori entzun ere egin nahi.

■ Eta behin lehen pausua emanda nola uzten zaio edateari?

Horretarako oso garrantzitsua da taldeko terapia. Lehen pausua da dexintoxikatu eta burua argitzea eta behin hori lortu denean gauzak oso

■ Hernaniko Alcohólico Anonimo elkartea 1968an sortu zen eta bilera informatiboak, familiarteko bilerak eta terapia bilerak egiten dituzte astero.

■ Bilera bakotzean 14-15 lagun biltzen dira Hernanin, baina, anonimatoa zaintze aldera beste herrietako elkartetara joaten direnak ere badira.



Hernaniko elkartean txosten ugari dituzte irakurri nahi dituenarentzat.

bestela ikusten dira. Baliteke desintoxicatze horretan mediku edo psikiatra batek laguntzea eta gero elkartera bideratzea. Hemen programa bat jartzen dugu martxan eta hasieran edateari uzteak oso zaila badirudi ere lortzen da, baldin eta gai-xoa konbenitzituta bada-go utzi egin behar duela. Edateari uz-tea lortu duen jendeak azalduko dio nola lortu duen eta lagundu egingo dio. Zenbaiten gertatzen da etortzen dena ez dagoela oso konbentxituta egitan arazo bat duela eta orduan esaten zaio probatzeko edan gabe egoten ea zermoduz aurkitzen den.

“Edaten nuenean ikuitzen nuen guztia puskatzen nuen. Gero ez nuen ezer ikuitzen ez puskatzeko. Edanari uztean ondo jartzen saiatzeko ikuitzen hasi nintzen”

■ Eta behin edateari utzita? Komenigarria da edateari utzita ere taldeko programarekin jarraitza, bestela konfiatu eta berriro edaten hasi bailiteke.

Izango da jendea ondo kontrolatu lezakeena, baina, taldean beste kontrol bat dago.

■ Seguru asko norberarentzat adina gogorra inguru koentzat izango da... Agian gogo-

rragoa izango da inguruko entzat norberarentzat baino. Askotan inguruko jendeari eta gehien maite denari egiten zaio kalte eta minik gehien.

■ Zer gomendio emango zenieke edanarekin arazoak dituen pertsona bat eta ingurukoei?

Arazoak dituenari zaila da, burua blai daukalako, baina, normalean estuasunean jartzen denean etorriko da. Familiartekoak etortzea ere komendi da, lagundu nahi badute ere ez baitakite nola egin eta hemengo terapiatan erakutsiko diote. Saiatu behar dute gaixoa ere hona ekartzen, arazo hori zer den dakien jendea baitaukate hemen.

■ Eta behin uztea lortzean bizitza berregin beharko da, afizio berriak bilatu...

Edatea uztean gauza asko hasten dira konpontzen, baina, egia da rutina eta bizitza aldatu egiten dela. Askotan ambienteak kutsatu lezake eta zenbait rutina ahaztu egin beharko dira: gauez tabernaz taberna ibiltzea eta abar.

Baina, pertsona bakoitzak desberdina da, neurria norberak jarri behar dio, eta ikusi zer kontrolatzeko gai den. □

Alcohólico Anonimoen arabera, edariarekin arazorik duen jakiteko bakoitzak bere buruari egin beharreko 12 galdera

- 1) Saiatu al zara inoiz ez edaten aste-betean edo epe luzeagoan, eta epea bukatu aurretik berriz ere edaten hasi?
- 2) Haserretzen al zara inork ez edateko ahokua ematen dizunetan?
- 3) Saiatu al zara inoiz kontrolatzen, edariak aldatuz?
- 4) Azken urtean inoiz edan al duzu goizean?
- 5) Inbidea ematen al dizute edan dezaketen pertsonak, edate horrek eragozen edo kalterik eragiten ez dielako?
- 6) Azken urteetan zure arazo haundi-tzen joan al da?
- 7) Zure edateko erak etxeen arazoak ekarri al ditu?
- 8) Edaria mugatua dagoen bileretan, ahaleginak egin al dituzu edari gehiago lortzeko?
- 9) Nahiz garbi izan edana ezin duzula kontrolatu, esaten al duzu, jo eta ke, nahi duzunean utzi dezakezula?
- 10) Azken urtean lanean huts egin al duzu edateagatik?
- 11) Edaria dela eta izan al duzu buruan hutsunerik?
- 12) Inoiz pentstu al duzu arrakasta haundiagoa eduki zenezakeela edango ez bazenu?

“4tik gora baiezkoak badira ia seguru egon arazoa duzula edanarekin”

Hernaniko Alcohólico Anonimoak

Sandiusterri azpiko lokaletan.

Telefonoa: 943 331103

estensioa 566.

(Bilera egun eta orduetan deitu)

Informazioa emateko bilera irekiak: Ostegunetan, 20:00etatik aurrera, nahi duen guztiarentzat.

Terapiak: Astelehen eta ostiraletan, 20:00etatik aurrera.

Familiarteko bilerak: asteazketan 19:30etan.

SANTA BARBARA
PEUGEOT

943 551139 / 943 551979

Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Aranzazu 15

- ✓ PEUGEOT 307 SW - HDI 110
- ✓ PEUGEOT 206 - 5 ate - diesela - aire egokitua
- ✓ PEUGEOT 405 MI 16 balbula
- ✓ ROVER 45 - Turbo diesela - aire egokitua
- ✓ SAAB Coupe 900 S - 2.0 130 CV
- ✓ FORD ESCORT - Turbo diesela - ezin hobeto
- ✓ VW TRANSPORTER - Furgoneta mixtoa
- ✓ PEUGEOT PARTNER - diesela

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzent ditugu

LARUNBAT GOIZETAN IREKITA DAGO

ZIURTATU ZURE AFIZIOAK

La Caixaren
Istripu Asegurua

Mendizalea, ehiztaria,
txirrindularia... bazara,
aseguru berezia daukagu
zuretzat.

LA CAIXA - Urbieta kalea 8 - HERNANI - 943 55 04 21

Hernani Kirol Elkarteak asanblada egingo du asteartean azkeneko hilabeteetan izandako arazoien berri emateko

■ Hilaren 15ean izango da arratsaldeko 19:00etan, Langile Laubidieta ikastolan.

HERNANI Kirol Elkarteko Zuzendari Batzordeak asanblada egingo du asteartean, hilaren 15ean, eta bertan azken 8 hilabete hauetan izandako arazoien berri eman nahi dute.

Bilera arratsaldeko 19:00etan izango da Langile ikastolan Laubidieta eraikinean eta eskatu dute bertara joan

nahi dutenak kotxea Txantxilan aparkatzeko eta bertatik oinez joateko. Laubidieta seinalizazioak egongo dira asanblada non den jakiteko.

Patronatuarekin arazoak
Hernani Kirol Elkarteak azaldu du bilera hau deitu duela azken 8 hilabeteetan Hernaniko Udal

Kirol Patronatuarekin izandako arazoengatik. Elkarteak jakin-narazi du "egoera SOS larria izango dela gauzak ez badira aldatzen" eta ondorio larriak izango dituela bai klubarentzat, "eta zer esanik ez Hernaniko kirolarentzat" diote. Dei egin nahi diete kirolari, guraso eta nahi duen guztiari azaltzeko. □

'Hernani' urtekaria atzeratu egingo da

UDAL Kultura Sailak urtero argitaratzen du Hernani urtekaria, San Joan bezperatan baina aurren atzeratu egin da. Noiz kaleratuko den ez badakite ere, udazken aldera izango da. Honen arazoia da, Udalak dioenez, Udalak programatzen dituen aktibidadeak urtean zehar banatu nahi izatea eta ekaina oso kargatua egotea. □

Tanborradako ensaioak astearte eta ostegunetan Santa Barbaran

SAN Joanetako helduen tanborradarako ensaioak, astearte eta ostegunetan izango dira, arratsaldeko 20:00etan, Santa Barbara elkartean. Elkarteak parte hartuko duen guztiari agertzeko deia egin nahi dio. □

Bilkura deitu du Herritarren Zerrendak gaur eguerdirako

HERRITARREN Zerrendak herritarrei deia egin nahi die gaur eguerdirako. Zita eguerdiko 12:00etan egin dute, plazan. Dei egin dute EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena) eramateko. □

JASOTA BEZALA

"In finibus Ernani ad litus maris"

Horrela adierazi zuen Iruñeko erregeak, Antso III Nagusiak, oraingo Donostiako Antiguako eliza, inguruko lurraldetako sagastiak, baserriak eta abar Leireko monasterioari eman zizkionean 1014an. Antso III Nagusiak lurraldea administratzen zuenean, 'in finibus Ernani ad litus maris'-arte zabaltzen baitzuen erresuma. Erresuma horretako hiritar horiek guztiak hasieran Iruñeko, eta geroago Nafarroako, estatuaren pean bizi izan ziren.

1014. urteko hernaniarrak, beraz, euskaldunak izanik nafar hiritarra ziren, Iruñea, Altsasu edota Erriberrikoak bezalaxe. Nafarroako erresuma garai hartan Europako estatu egituratu bat

gehiago zen, garrantzitsuenetako bat. Gainerako estatuekin diplomazia harremanak mantentzen zituen eta Europan egiten ziren goi mailako errege bileretan eta kontzilioetan parte zuzena hartzen zuen. Baino, Nafarroako erresumari, Nabarra osoari, 1199. urtean zati bat ebaki zioten eta hankamotz utzi. 1512an, berriz, lepoa moztu zioten eta independentzia lapurtu. Orduan eta ondoren gerta-takoak sasi-historia bihurtuta irakurri eta sinestu behar izan dugu erasotzaile eta inbasoreen eskutik, gaur egun arte. Euskaldunok, nafar hiritarrok, ez dugu aukerarik izan gure historia aztertzeko eta ondorioak ateratzeko, hori ere lapurtu baitigute.

Hala eta guztiz ere, bada azken urte hauetan horri aurre egiteko

teko eta gure benetako historia azaleratzeko izugarritzko lana egiten ari den historialari, kazetari eta ikertzaile talde bat; besteak beste: Pedro Esarte, Tomas Urzainki, Jimeno Jurio eta abar. Horien guztiak eskutik hasi gara izan ginenaren eta galduztako gure historiaren kontzientzia berreskuratzen. Horiek egindako lana alferrik izango da, ordea, guk ez badiegu zabaltzeko biderik ematen. Gonbidatu nahi zaitugu, bida, ondoko ekitaldian parte hartzera:

Nabarraldeko hitzaldi-aurkezpena. Biteri Kultur Etxean, eainaren 22an, arratsaldeko 7:30etan. Etor zaitez.

Beñi Agirre eta Jon Garmendia



Matrikulatu zure sema-alabak Hernanin

Hernani Institutua



Hernani institutuko gurasoak

Hernanin bizi hernanin hezi!!



Izarre Jatetxea
Ondo pasa
San Antonio jaiak!

Pol. Lastaola
Tel.: 943 55 0640-
HERNANI (Gipuzkoa)

San Antonio eguna gaur Ereñotzun

SAN Antonio eguna ospatuko dute gaur Ereñotzuko jaietan. Goizeko 08:00etan txistulariekin diana izango da eta ondorenean trikitilaria arituko dira goiz guzian zehar. 11:30etan TTarla Dantza Taldearen emanaldia izango da eta 12:00etan, sagardo probaketa. 12:30etan herri kirolak ikusteko aukera izango da.

Arratsaldeko 18:30etan beretsolariek emanaldia eskainiko dute: Maialen Lujanbio, Joxe Agirre, Silveira, Jexux Mari Irazu, Amets Artzallus eta Mendi-luze arituko dira. Gauean Tapia eta Leturiarekin Erromeria.

Goiz eta arratsaldeko Pro-bintzi mailako San Antonio bola eta toka txapelketa jokatuko da. □

ANTXON IRADI IRASTORZA

JAUNA



Atzo hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Haren emaztea: Regina Gorrotxategi; seme-alabak: Maite eta Luis Mari Arratibel, Lourdes eta Juan Mari Oiarzabal, Koro (Mañel Olanoren alarguna). Anton eta Edurne Elizalde; bilobak: Anton eta Susana, Koldo, Manu, Ion eta Susana, Lourdetxo eta Jon Ander, Inhar, Ion, Paulo, Marko, Sara eta Maddi; biloba: Iker; anai-arrebak: Pakita, Mari Mertxe Dorronsoro (Jose Manuel Iradier alarguna), Luis Gorrotxategi eta María Luisa Arozena; ilobak, lehegusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizueta eta arren etor zaiztela BIHAR, ASTELEHENIA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JUAN BATAILATZAILEAREN parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2004ko ekainaren 13an

Helbidea: Juan de Urbieta, 12-3.C

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738
- Gauiez: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738

IRAGARKI MERKEAK

Opel Corsa salgai. Turbo Diesel. SS-AT. Egoera onean. ITVa pasa berria. Interesatuek deitu: **652 70 72 15**

Peugeot 307 HDI salgai. 90 zaldia. 2002 urtekoa. 33.000 km. Klimatizadorea. 6 CDrentzat kargadorea. Interesatuek deitu (14:00etatik aurrera): **696 35 48 92**

Bi ohe artikulatu (motorrarekin artikulatzen dira) dauzkat salgai. 90 zmko zabalera dute eta berri berriak daude. Prezioa adosteko Deitu: **943 33 37 67 . 943 33 05 84**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

Nissan Primera salgai. SS-AN. 1.200 euro. Interesatuek deitu: **661 86 22 19**

Langile autonomoa behar dugu, janari denden lan egiteko. Deitu: **657 79 29 48**

Tabernan lan egiteko pertsona bat behar da. Deitu: **615 74 87 27**

ATXIKI Taberna

San Joan-eten afariak
ematen ditugu enkarguz
Enkargatzeko:

☎ 943 33 1660



Eguneko menuak
Bokatak
Plater konbinatuak

Hernaniko Kiroldegia

TXILIBITA TABERNA

Ondo pasa
San Antonio jaiak!

San Antoniotan hamaketakoa
eta bazkaria, ematen ditugu.



GARMENDIA

MORTZ KLINIKA



ODONTOLOGIA OROKORRA
MARCELO BORRLE DOKTOREA (kol. ZKIA 320)

ORTODONTZIA
UME ETA HELDUENTZAT
KATHERIN PARR DOKTOREA

ESKUATU PRESUPUESTOA KONPROMISOK GABE

TXIRRITA KALEA 13-1^a EZK. ~ TELF.: 943 55 34 92